

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Usurbilgo Udala**

**Ayuntamiento de Usurbil**

**2011**



## **AURKIBIDEA/ÍNDICE**

<b>0. LABURDURAK</b> .....	<b>5</b>
<b>I. SARRERA</b> .....	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA</b> .....	<b>8</b>
II.1 UDALA .....	8
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	8
II.2 KIROLETAKO UDAL PATRONATUA .....	10
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	10
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	10
<b>III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK</b> .....	<b>12</b>
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	12
III.2 Langileria .....	13
III.3 Kontratazioa .....	14
III.4 Beste alderdi batzuk .....	16
<b>IV. FINANTZEN ANALISIA</b> .....	<b>17</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK</b> .....	<b>21</b>
V.1 Udala.....	21
V.2 Kiroletako Udal Patronatua.....	24
<b>ALEGAZIOAK</b> .....	<b>27</b>
<b>0. ABREVIATURAS</b> .....	<b>47</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>49</b>
<b>II. OPINIÓN</b> .....	<b>50</b>
II.1 AYUNTAMIENTO .....	50
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	50
II.1.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	50
II.2 PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES .....	52
II.2.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	52
II.2.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	52

<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>54</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	54
III.2 Personal.....	55
III.3 Contratación .....	56
III.4 Otros aspectos.....	58
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>59</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES.....</b>	<b>63</b>
V.1 Ayuntamiento.....	63
V.2 Patronato Municipal de Deportes.....	66
<b>ANEXOS .....</b>	<b>69</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	69
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	70
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	72
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	73
A.5 Enajenación inversiones reales .....	74
A.6 Gastos de personal .....	76
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios .....	78
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas .....	80
A.9 Inmovilizado y patrimonio en situaciones especiales.....	81
A.10 Pasivos financieros.....	83
A.11 Deudores presupuestarios.....	84
A.12 Operaciones extrapresupuestarias.....	85
A.13 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	86
A.14 Clasificación funcional del gasto .....	87
A.15 Análisis de contratación.....	88
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>91</b>



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## 0. LABURDURAK

BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
OHZ	Ondasun higiezinaren gaineko zerga
EIOZ	Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
LHL	2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa.
AEUA	Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
LZ	Lanpostuen Zerrenda
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege-Dekretua, ekainaren 2koa, Kontratu Legearen Testu Bategina.
BOE	Babes Ofizialeko Etxebizitzak





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Usurbilgo Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoen 2011ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren eta bere erakunde autonomoaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Usurbilgo udalerrriak 6.062 biztanle ditu 2011ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera eta bere egituran, Udalaz gain, Kiroletako Udal Patronatua Erakunde Autonomoa besarkatzen du. Halaber, ondoko hauetan ere partaide da: Añarbeko Uren Mankomunitatean, San Marko Mankomunitatean, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA), Atallu Industri Sustapena, SAN eta Garbitania Zero Zabor, SLn.

## II. IRITZIA

### II.1 UDALA

#### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### KONTRATAZIOA (ikus A.15)

1. Zerga-ikuskaritza gaietan laguntza tekniko eta lankidetzaz zerbitzua 2007ko otsailaren 13an esleitu zen aleko prezioetan eta 2 urtetarako, beste bi urtetara luzagarri, 3 eskaintza eskatuz prozedura negoziatu bidez; izan ere, Udalak kontratuaren baietsitako prezioak ez zuela urteko 30.000 euroren gastua gaindituko. Nolanahi dela ere, kontratuaren indarraldian zehar gauzatutako exekuzio mailak, 126.419, 540.613 eta 261.791 eurorena 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietan, hurrenez hurren, gastuaren gainean egin zen balioespena desegokia izan zela erakusten du, administrazioko kontratazioa arautzen duten lizitazio printzipioak urratzea eragin duena. Gainera, enpresa esleipenduna 2011ko ekitaldirako Zerga Ikuskaritzaren Planean jasotako jarduerak gauzatu ari da, kontratuaren indarraldia 2011ko otsailaren 28an amaitu zelarik; Plana 2011ko urtarrilaren 11n onartu zen.
2. A-34 Sekaia gunean eta S-6 Agerreazpi sektorean Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzea emandako 2 lursail besterentzeko kontratua 995.000 euroren zenbatekoan esleitu zen (Bez jaso gabe); kontratu horren lizitazio zenbatekoa (860.000 euro) zerbitzu teknikoek egindako tasazioa baino 132.122 euro txikiagoa da (992.122 euro) eta pleguek prezioa-irizpiderako lizitazio tipoa 135.000 euroren gehiengora arte hobetzen uzten duen formula matematikoa barne hartzen dute, lizitatuak guztiek eskainitako zenbatekoa. Gainera, espedientean ez dago justifikatuta prezioaren hobekuntza 995.000 eurora arte mugatzea, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren gehiengo salmenta prezioaren % 20 erregimen orokorrean (lurraren eragin balioaren arabera ezarritako muga) 1,3 milioi eurorena denean (martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 7. artikulua, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitza eta lur gaitan finantza neurriei buruzkoa).

Epaitegi honen ustetan, Usurbilgo Udalak, 1etik 2ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduerak arautzen duen lege arautegia.

#### II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Usurbilgo Udalak 2011ko abenduaren 31n ordaintzeko du 530.662 euroren zenbatekoa, 2009ko UFFFen likidazio negatiboaren itzulketari dagokiona, 2012 eta 2013ko ekitaldietan gauzatuko dena. Aurrekontuan, kopuru horiek 2009ko ekitaldi itxieran "Transferentzia arruntak" kapitulutik murriztu dira eta aldi berean, diru-sarrera "Finantza pasiboak" kapituluaren aitortu da; honenbestez, ez dira 2011ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinetik murriztu. Bestetik, 2011ko ekitaldiaren likidazio negatiboa, 420.864 eurorena, "Transferentzia arruntak" kapituluaren sarrera txiki modura erregistratu da, 2011ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikina murriztuz. Kopuru hau 4 epetan itzuliko da 2012ko



ekitaldian eta GFAk ekarpen osagarri bat eman du kuota horiei aurre egin ahal izateko; Usurbilgo Udalaren kasuan, 14.423 euro egiten ditu.

1. Udalak ez du 2011ko abenduaren 31n gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrendarik, egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren kopurua data horretako ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datorren ondorioztatzen utziko duena.
2. Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute 2011ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren, Egoera Balantzearen eta Funtz Propioen gainean:

Kontzeptua	Euroak milakotan			
	Aurrekontukoa Diruzaintza geldikina	Ondarekoa Aktiboa	Ondarekoa Pasiboa	Funtz propioak
<b>11.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko eskubideak</b>				
A.3 Ura, estolderia eta hondakinen errolda, 2011ko 4. hiruhil. ....	221	221	-	221
A.5 A-34 Sekaño hirigintzako gehiegizko aprobetxamenduak .....	98	98	-	98
<b>Sortu gabeko eskubideak eta 11.12.31n erregistratuak</b>				
A.4 Lanbide enplegua sustatzeko diru-lag. sarrerren bikoiztasuna .....	(66)	-	66	(66)
A.11 Kontabilitateko akatsengatik zuzendu beharreko sarrerak .....	(362)	(362)	-	(362)
A.11 Ugartondo konprometitutako sarr. kobratu gabea .....	(1.006)	(1.006)	-	(1.006)
<b>Sortu gabeko obligazioak, 11.12.31n erregistratuak</b>				
A.9 Babes Of. Etx. adjudikatariek etxebiz. erostea .....	330	(330)	(330)	-
<b>Finantzaketa desbideratzeak Diruz. Geldikineran 11/12/31n</b>				
A.4 EAren diru-lag. 2011-2012 ikasturt. 1. hiruhil. haur eskolari .....	(93)	-	-	-
A.5 A-34 Sekaño sektoreko 2. fasearen urbanizazioan parte hartze kuotak	(550)	-	-	-
A.5 S-6 Agerreazpi gunearen urbanizazioan parte hartze kuotak .....	(521)	-	-	-
<b>Ondare doiketak</b>				
A.9 Ibilgetuaren amortizazioa zuzentz. doiketa gehiegizkoa .....	-	(285)	-	(285)
A.9 Sekaño eta Agerreazpi lursailak besterentzea .....	-	1.073	-	1.073
A.10 2009ko UFFF erregistratu gabea .....	-	-	802	(802)
<b>GUZTIRA</b>	<b>(1.949)</b>	<b>(591)</b>	<b>538</b>	<b>(1.129)</b>

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Usurbilgo Udalaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2011ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



## **II.2 KIROLETAKO UDAL PATRONATUA.**

### **II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **OROKORRA**

1. Kiroletako Udal Patronatuak ez du hirugarrenetik eragiketen urteko aitortpena aurkezten, abenduaren 17ko 94/1996 Foru Dekretuan araututakoa, zerga-kudeaketan elkarri laguntza emateko betebeharrak urratuz, martxoaren 8ko Zergei buruzko Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2/2005 Foru Arau Orokorren 90. artikuluan jasoa.

#### **AURREKONTUA**

2. Kiroletako Udal Patronatuak 2011ko ekitaldian 60.755 euroren gastuak gauzatu ditu aurretik aurrekontuko diru-izendapenik batere izan gabe eta ekitaldi itxieran kredituak baliadun eginez aurrekontuaren aldaketa bat onartu du; horren finantzaketa Usurbilgo Udalak onartutako transferentzia batetik dator.

#### **KONTRATAZIOA (ikus A.15)**

3. Kirol instalakuntzak garbitzeko eta Oiardo kiroldegiaren kontrol eta administrazio lanak egiteko zerbitzu kontratuak hurrenez hurren 340.527 eta 401.406 euroan esleitu ziren 4 urteko eperako, beste 2tara luzagarriak; kontratu horien lizitazioak ez dira ez DOUEn ez BOEn argitaratu, SPKLren 23. eta 126. artikulua urratuz. Honez gain, pleguek ez dituzte zerbitzu horiei dagozkien enpresa sailkapenak eskatu, SPKLren 54. artikulua urratuz.
4. Kirol instalakuntzak garbitzeko zerbitzuaren kontratua 340.527 euroan esleitu zen; kontratu hori zabaldu egin da 2011ko azarotik aurrera eta horrek hileko % 19ko igoera ekarri du; ordea, kontratu aldaketa hori ez da behar bezala izapidetu, ezta dagokion kontratazio atalak onetsi ere, SPKLren 202 artikulua urratuz.

Epaitegi honen ustetan, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, Kirolaren Udal Patronatua Erakunde Autonomoak zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege araudia.

### **II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

1. Hona hemen fiskalizazio lanean azaleratutako alderdi esanguratsuenak, Kiroletako Udal Patronatuaren 2011ko ekitaldiaren jardura ekonomikoaren eta 2011ko abenduaren 31n aurrekontuaren egoeraren irudi leiala eragiten dutenak:
  - kontularitzako sisteman, kalkulu orri batean jasotzen dena, ez dira banaka erregistratzen kobrantza eta ordainketa aginduak eta horrek ez du kontabilizatutako sarrera eta gastuekin lotzen uzten. Kontularitzako sistema honek dituen ahulezien ondorioz, Erakunde Autonomoak ez du 2011ko abenduaren 31n kobratu eta ordaintzeko dauden saldoen banakako xehapenik.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Fiskalizazio lanean zehar Patronatuaren jabetzakoak diren finantza kontuen hasierako eta amaierako saldoen arteko berdinkatzean 43.146 euroren aldea azaleratu da, 2011ko abenduaren 31n Aurrekontu Likidazioak jasotzen duen diruzaintzako saldoarekiko eta ezin justifikatu izan da. Erakunde Autonomoak ez du Diruzaintza Kontua egiten eta horrek 21/2003 FAREN 47. artikulua urratzen du; berebat, ez du kontrol prozeduren artean banku-berdinkatzeak egitea jasotzen.
  - Ez da Aurrekontukoak ez diren zordun eta hartzekodunen saldoen egoera gauzatu eta Aurrekontu Likidazioak ere ez du kontzeptu horien izeneko saldorik jasotzen; horrek guztiak 21/2003 FAREN 47. artikulua urratzen du; halaber, ordaintzeko zorrak daude, hala nola, 2011ko azken hiruhilekoko NUIZ kontzeptuko atxikipenak eta langileei abenduan Gizarte Segurantzza eta Elkarkidetzak kontzeptuarekin egindako dedukzioak.
2. Udal artekariak ez ditu Erakunde Autonomoan kontabilitatea fiskalizatu eta ikuskatzeko egitekoak bete, ezta finantza kontrolari buruzkoak ere, ondoko hauetan agindutakoa urratuz: martxoaren 5eko Legegintzako Errege Dekretuaren 204.2 artikuluan, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena; irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 4. artikuluan, estaturako gaikuntza duen funtzionarioen araubide juridikoa onartzen duena; eta Kiroletako Udal Patronatuaren Estatutuen 9. artikuluan.
  3. Erakunde Autonomoak ez du Egoeraren Balantzea, ez Galera-Irabazien Kontua mamitzen, 21/2003 FAREN 62. artikulua urratuz; egoera horiek ekitaldiko Kontu Orokorrean barne hartu behar dira.

1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenek duten garrantzia handiaren ondorioz, ez dezakegu Kiroletako Udal Patronatua Erakunde Autonomoaren 2011ko ekitaldiaren Urteko Kontuen gaineko iritzirik eman.



### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2011ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra hasiera batean 2011ko otsailaren 15eko Osokoak onetsi zituen; ordea, 21/2003 FAREN 15.2 artikulua behin-betiko onespena dagokion ekitaldiaz aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago egitea aurreikusten du. Gainera, Aurrekontu horietan eragiketa arrunten kontzeptuko sarrerak 90.361 euro txikiagoak dira izaera bereko gastuak gehi zorpetzea amortizatzen diren gastuak baino, 21/2003 FAREN 14.6 artikuluan aurreikusitakoaren aurka.
- 2011ko ekitaldian honako akats hauek azaleratu dira Udalaren kontularitzako erregistroan:
  - 2011ko abenduaren 31n aurrekontuko kontabilitatean sarrera fiskaletatik kobratzeko dagoen zenbatekoak 729.676 euroan gaintzen du diru-bilketarako programaren zerrendetan jasotako zenbatekoa (data horretan kobratzeko dagoen guztizkoaren gainean % 57). Alde honen arrazoia, nagusiki, sarrerak kontabilizatzean bikoizketak izatea eta diru-bilketan baja diren kontularitzako zorrei ez baja ematea da. Honek erakusten du Udalak ez dituela kudeaketa eta kontrolerako prozedura egokiak.
  - 2011ko ekitaldian zehar aurreko ekitaldietatik eratorritako kredituen % 14 baliogabetu da, esleipen konpromiso irmoen eta kontabilizatutako erabilera-zenbatekoen arteko aldearen ondorioz.
- Ondoko gastu eta sarrera hauek oker aurrekontuetan eta kontabilizatu dira, abenduaren 21eko 100/2004 Foru Dekretuan xedatutakoa urratuz, aurrekontuaren egitura eta udalen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituenak.
  - Zinegotziak egiaz saioetara joateagatik ordainsarien gastuak, 8.750 eurorenak, eta talde politikoei emandako diru-izendapenak, 26.123 eurorenak, “Langile gastuak” kapituluaren erregistratu dira; ordea, kontularitzan zuzen erregistratzeko, hurrenez hurren, “Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak” eta “Transferentzia arruntak” kapituluaren jaso behar ziratekeen.
  - Udaleko langileen bizi aseguru poliza kontratatzeak eragindako gastua, 19.790 eurorena, “Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak” kapituluaren kontabilizatu da; zuzena “Langile gastuak” kapituluaren erregistratzea da.
  - Añarbeko Uren Mankomunitateak ur-instalaketak mantentzeko kuota finkoari dagokion gastua eta uraren kontsumo kontzeptuan fakturatutako azken erreziboa, 118.384 euroren zenbatekoa, “Transferentzia arruntak” kapituluaren kontabilizatu da; zuzenagoa da, baina, “Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak” kapituluaren kontabilizatzea.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Udalak “Inbertsio errealak” kapituluan kontabilizatu ditu Kiroletako Udal Patronatuak egindako gastuak, 69.369 euroren zenbatekoan; ordea, zuzenagoa da horiek “Kapital transferentziak” kapituluan kontuetaratzea. Sarrera horiek Erakunde Autonomoak “Transferentzia arruntak” kapituluan erregistratu ditu; zuzen erregistratzeko, baina, “kapital transferentziak” kapituluan kontabilizatu behar dira.
- Udalak “Transferentzia arruntak” kapituluan plastiko hondakinetatik eskuratutako diru-sarrerak kontabilizatu ditu, 110.400 euroren zenbatekoan; zuzenagoa da, ordea, “Tasak eta bestelako sarrerak” kapituluan kontabilizatzea.
- Udalak “Kapital transferentziak” kapituluan A-34 Sekaia sektorea urbanizatzeko lanen partaidetza kuotei dagozkien diru-sarrerak kontabilizatu ditu, 574.896 euroren zenbatekoan; horiek, baina, “Inbertsio errealeen besterentzea” kapituluan erregistratu behar lirateke.
- Udalak 2011ko ekitaldiaren aurrekontuko gastu modura ur kontsumoaren eta ur eta saneamendu sareko azpiegituren zaintza eta inbertsio gastuen jasandako BEZ erregistratu du; BEZ hori gerora Foru Ogasunaren aurrean aitortu da. Jasandako BEZ kengarria duten gastuak aurrekontuko kontabilitatean erregistratu behar dira zerga kenduta geratzen den zenbatekoan eta BEZ hori dagozkion aurrekontuz kanpoko kontuetan erregistratu behar da.
- udalak 2011ko ekitaldiaren Aurrekontu Likidazioaren diruzaintzako egoeran ez ditu guztira 8 kontu korrante barne hartu, 2011ko abenduaren 31n 18.635 euro egin dutenak; horiek, nagusiki, diru-bilketako kontu mugatuei dagozkie. 2011ko ekitaldiaren Aurrekontu Likidazioaren Diruzaintza Geldikinean zenbateko hauek kobratzeko zain dauden kontu-sail modura daude jasoak.
- Udalak 2011ko abenduaren 31n Egoera Balantzean “Erabilera orokorrera emandako ondasun eta azpiegiturak” ondare kontuan jada amaituak eta jasoak dauden obrak mantentzen ditu; horiek zuzen erregistratzeko “Erabilera orokorrera emandako ondasun eta azpiegiturak” kontura aldatu behar lirateke.

### III.2 LANGILERIA

- 2011ko urriaren 4ko Toki Gobernuaren Batzordeak 2011ko ekitaldiaren Enplegu Eskaintza Publikoa onartu zuen. EEP horrek funtzionarioentzat gordetako 15 lanpostu barne hartzen ditu eta horiek dira data horretan zeuden lanpostu huts guztiak (2010eko EEPn jasotako lanpostu huts 1 salbu); kopuru honek, baina, urratu egiten ditu abenduaren 22ko 39/2010 Legean, 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrera, ezarritako mugak, birjartze-tasaren % 30 gainditu baitu. Usurbilgo Udalean tasa hau zerokoa izan da 2011ko ekitaldian. Txosten hau idatzi dugun datan behin-betiko betetzeko administrariren 5 lanpostu baizik ez dira deitu barne promozioan (sortzez berriak lanpostuen balorazioa egin ostean).



### III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean Udalean eta Kiroletako Udal Patronatuan indarrean zeuden 12 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.15):

#### - Espedientea

Udalak aleko prezioetan esleitutako zerbitzuak kudeatzeko kontratu 1 eta Kiroletako Udal Patronatuak esleitutako 2 zerbitzu kontratu, 741.933 eurorenak, presako prozedura baliatutako izapidetu dira, aurrez izenpetutako kontratuak berehala amaitzekoak zirela eta. Administrazioak ez luke presako prozedura espedienteen izapidea arintzeko erabili behar, behar hainbateko aurrerapenez abiarazi behar ziratekeenak (8, 11 eta 12 zk. espedienteak).

Kiroletako Udal Patronatuak 340.527 euroan esleitutako zerbitzu kontratu bati dagozkion pleguek, besteak beste, eskaintzak balio-neurtzeko baliatu duten irizpide bat ez zaio zuzenean lotzen kontratuaren xedeari (enplegurako zentro berezi modura baimendua izatea) eta horrek SPKLren 134.1 artikuluan xedatutakoa urratzen du (11. espedientea). Administrazioek pertsona ezinduei enplegua sustatzea bultzatzea dezakete enplegurako zentro berezientzat gordetako lehiaketan bitartez edo kontratuak betetzeko baldintza bereziak jasoz.

Udalak aleko prezioetan esleitutako 2 zerbitzu kontraturi dagozkien pleguek, besteak beste, lehiatzaileen kaudimenean oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzen ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, APKLTBren 15. eta ondoko artikuluek eta SPKLren 65. eta ondoko artikuluek ezartzen duten moduan (5. eta 6. espedienteak).

Udalak 772.426 euroan esleitutako kontratu lean, pleguetan jasotako formulak hasiera batean irizpide horri egotzitako 50 punturen balioa murriztu egiten du eta 35 puntura mugatzen (1. espedientea).

Udalak aleko prezioetan esleitutako 2 kontraturen pleguek eta Kiroletako Udal Patronatuak esleitutako 3 kontraturen pleguek, 1 aleko prezioetan eta 2, 741.933 euroan, prezioa balioztatzeko hainbat formula aritmetiko ezartzen dituzte; formula horiek baina, objektiboak eta publikoak izan arren, eskaintza ekonomikoenak zigortzen dituzte, aurrez zehaztutako beheranzko kopuru batetik aurrera puntuaketa berdindu egiten baitute.

Udalak aleko prezioetan esleitutako zerbitzu kontratu batean ez da justifikatu prezioa esleipen irizpide modura baztertu izatea (6. espedientea).

Kiroletako Udal Patronatuak guztira 741.933 euroan esleitutako 2 kontraturen pleguek lehiaketaz kanpo uztea agintzen dute neurrigabeko merkatze edo ausartegi irizpitako proposamenak, pleguetan erregelamenduari jarraiki finkatutako formula ezarriz eta kontratugileari entzun gabe eta SPKLren 136. artikuluan aurreikusten den geroko izapidea bideratu gabe (11 eta 12 espedienteak).

#### - Esleipena

Udal Patronatuak aleko prezioetan esleitutako kontratu lean, irizpideen balorazioa, zeinetan zenbatespena balio-judizio baten baitakoa den, formulak baliatuta kalkulatzeko



diren irizpideak balioztatu aurretik egin da, SPKLren 134.2 artikuluan aurreikusitakoaren aurka (10. espedienteak).

Kiroletako Udal Patronatuak esleitutako 2 kontratutan, 1 aleko prezioetan eta 1, 401.406 euroan, zeinetan formulak aplikatuta automatikoki neurgarriak diren irizpideek balio-judizio baten baitako zenbatespena duten irizpideak baino haztaperen txikiagoa duten, azken hauen balorazioa ez du gutxienez 3 adituk osatutako batzordeak edo berariaz gaitutako organismo tekniko batek egin eta horrek SPKLren 134.2 artikulua urratzen du (10 eta 12 espedienteak).

Udalak aleko prezioetan esleitutako kontratu leian eta Kirolaren Udal Patronatuak esleitutako 3 kontratutan, 1 aleko prezioetan eta 2, 741.933 euroan, gordailututako bermea eta pleguetan exijitutakoa % 5ekoa da urteko baten zenbatekoaren gainean eta ez kontratu-urte guztien gainean, SPKLren 83. artikulua urratuz (6, 10, 11 eta 12 espedienteak).

Udalak aleko prezioetan esleitutako kontratu leian eta Kirolaren Udal Patronatuak esleitutako 3 kontratutan, 1 aleko prezioetan eta 2, 741.933 euroan, behin-betiko bermea ez da dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratu, SPKLren 138.2 artikulua urratuz (6, 10, 11 eta 12 espedienteak).

- **Egikaritza eta harrera**

Udalak guztira 1,6 milioi euroan esleitutako 2 obra kontratutan lanak betetzeko epeak urratu direla ikusi dugu, epea luzatzeko dagozkion onespenuk bideratu gabe, SPKLren 197. artikulua agindutakoari jarraiki. Gainera, kontratu horietan kontratazio atalak azken ziurtagiria obra jasotzeko akta egin zenetik 3 hilabete baino gehiago igaroak direla onartu du, SPKLren 218. artikuluan ezarritakoa urratuz (2 eta 3 espedienteak).

Udalaren ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketen 2011ko gastuaren egikaritza berrikustean honako alderdi hauek azaleratu dira:

- Eguneko zentroaren erabiltzaileen garraio-zerbitzu kontzeptuan 34.441 euroren zenbateko gastua egin da; zerbitzu hau hainbat urtetan hirugarren berak eman du, kontratazio araudiak agintzen dituen kontratazio prozedurak saihestuz.
- 2011ko ekitaldian ibilgailuen aseguruaren kontratazioa eskaintzarik onuragarrienari esleitu zitzaion, hainbat hirugarreni aurrekontua egiteko eskatu ondoren. Nolanahi den ere, hirugarren berari esleitu zitzaizkion bizitza, erantzukizun zibil eta higiezinaren aseguru kontratuak. 2011ko ekitaldian gauzatutako gastua 87.554 eurorena izan da.
- Hiri hondakinen gaikako bilketan eskuratutako kartoia eta papera zuzenean enpresa bati besterendu zaio 49.739 euroren zenbatekoan, ondare eta kontratazio araudiak agintzen duenaren aurka.



### III.4 BESTELAKO ALDERDIAK

- 2011ko ekitaldiaren kontratazio espedienteen egikaritzan hainbat ordainketa (1,2 milioi euroren zenbatekoa egin dutenak, aztertutako guztizkoaren gainean % 44) epea gaudituta gauzatu direla egiaztatu da, uztailaren 5eko 15/2010 Legeak abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldaraziz ezarritakoa; lege honek merkataritza eragiketetan berankortasunaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen ditu. Ez-betetze hauetatik atal handi bat fiskalizazio-gai izan den ekitaldiaren apirila eta uztaila bitartean gauzatu da. Udalak unean uneko likidezia arazoak konpontzeko diruzaintzako eragiketa bat gauzatu zuen, 2011ko uztailaren 12ko Alkatetzaren Dekretu bitartez onartu zena. Halaber, udal artekaritzak ez ditu 2011ko ekitaldian aurreikusitako ordainketa epeak betetzeari dagokionez Osokoari aurkeztu behar dizkion hiruhileko txostenak egin, aipatutako legearen 4.3 artikulua agintzen duen moduan.
- Udalak ez die 2011ko ekitaldian zehar obra proiektu eta zuzendaritzak garatzeko zerbitzu eman duten 4 profesional askeri euren ordainagiritan kontura % 15eko atxikipena egiteko eskatu; zerbitzu horien zenbatekoa 94.753 eurorena izan da; kopuru horiek, bada, ez dira Gipuzkoako Foru Ogasunaren aurrean aitortu, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren 114. artikuluan xedatutakoaren aurka, NUIZ Erregelamendua onesten duena.





#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2009(*)	2010(*)	2011	2009	2010	2011
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.) .....	4.393	5.210	4.876	742	866	804
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.) .....	4.288	4.836	4.529	724	804	747
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	44	11	5	7	2	1
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>8.725</b>	<b>10.057</b>	<b>9.410</b>	<b>1.473</b>	<b>1.672</b>	<b>1.552</b>
Langile gastuak (1. kap.) .....	3.403	3.513	3.270	575	584	539
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.) .....	3.321	4.125	4.442	561	686	733
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.) .....	1.263	1.276	1.283	213	212	212
<b>B. Funtzionamendu gastuak .....</b>	<b>7.987</b>	<b>8.914</b>	<b>8.995</b>	<b>1.349</b>	<b>1.482</b>	<b>1.484</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>738</b>	<b>1.143</b>	<b>415</b>	<b>124</b>	<b>190</b>	<b>68</b>
- Finantza gastuak (3. kap.) .....	58	58	53	10	10	9
<b>Emaitza arrunta .....</b>	<b>680</b>	<b>1.085</b>	<b>362</b>	<b>114</b>	<b>180</b>	<b>59</b>
-Maileguen amortizazioa (9. kap.) .....	508	485	536	86	81	88
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>172</b>	<b>600</b>	<b>(174)</b>	<b>28</b>	<b>99</b>	<b>(29)</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.) .....	1.460	533	1.650	247	89	272
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	1.631	1.839	964	276	306	159
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	3.449	2.676	2.855	583	445	471
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	172	122	725	29	20	120
<b>Kapitaleko eragiketen emaitza .....</b>	<b>(530)</b>	<b>(426)</b>	<b>(966)</b>	<b>(89)</b>	<b>(70)</b>	<b>(160)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.) .....	150	659	(604)	25	110	(101)
Diruzaintzako geldikina .....	2.673	2.617	1.109	452	435	183
<b>Zorpetzea 12/31n .....</b>	<b>2.147</b>	<b>3.080</b>	<b>2.815</b>	<b>363</b>	<b>512</b>	<b>464</b>

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 8 gehitu dira aztertutako aldirian (% 6 jaitzi dira 2011ko ekitaldirian eta % 15 gehitu 2010eko ekitaldirian, aurre-aurreko ekitaldiarekiko). Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek aztergai izan dugun aldirian % 1 gehitu dira. Nolanahi dela ere, 2010eko ekitaldiaren sarrera maila nagusitzen da gainerako ekitaldien aldean:
  - Zerga zuzenek eragindako sarrerek ez dute aldaketarik izan aztertutako aldirian, nahiz tipo zergagarriek gora egin duten 2011ko ekitaldirian (% 0,5 OHZ; % 2,5 JEZ; % 3,5 TMIZ), zerga horiek eurak 2010ean bere horretan mantendu izanaren aldean. Nolanahi ere, azpimarratzekoak dira 2010eko ekitaldirian aitortutako sarrerak, zerga ikuskaritzaren lanen ondoren zerga kuotak gaurkotu izanaren ondorioz eskuratutako aparteko sarrerengatik, batik bat; ikuskaritzak nagusiki JEZ eragin zuen.



- Tasak eta bestelako sarrerak kontzeptuko sarrerak % 30 egin dute gora aztertutako aldian, hondakinen tasak eragindako sarreraren igoeraren ondorioz nagusiki (% 81eko igoera); izan ere, atez ateko bilketa sistemaren tarifa aldatu da eta batez ere denda eta industriak eragin ditu, birziklagarriak ez diren hondakinen bolumenaren arabera tasa fakturatu baitzaie (ikus A.7).
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Diru-sarrera hauek 2011ko ekitaldian % 6 murriztu dira, 2010eko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko izan zuten % 13ko igoeraren aldean. Horren arrazoia, nagusiki, UFFFen kontzeptuan aitortutako diru-sarrerak izan duten bilakaeran datza, itunpeko zergen diru-bilketatik eratorritakoak, 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietan, hurrenez hurren, 2,8, 3,2 eta 2,9 milioi euro egin dutenak.

**Funtzionamendu gastuak:** % 13 gehitu dira aztergai izan den aldian (% 1 eta % 12ko igoerak 2011 eta 2010eko ekitaldietan, hurrenez hurren). Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile gastuak:** % 7 egin dute behera 2011ko ekitaldian eta % 3 gehitu dira 2010eko ekitaldian. 2010eko ekitaldiaren igoera justifikatzen da, batik bat, ekitaldi horretan karrerako funtzionario berriak gehitu direlako lanpostu berriak sortu izanaren ondorioz. 2011ko ekitaldiaren bariazioari dagokionez, berriz, zera azpimarratu behar da:
  - Ordainsariak eragindako gastuak % 10 gehitu dira, batik bat, funtzionario berriak gehitu direlako eta 2011ko ekainaren 1etik aurrera onartutako lanpostuen balorazioaren ondoren ordainsari mailek gora egin dutelako.
  - Aldi baterako langileen kontrataziorako bereizitako gastua % 62 murriztu da, izan ere 2009ko martxoaz geroztik kontratatu ziren langileen kontratuak 2011ko otsailean amaitu ziren, atez ateko hondakinen bilketa zerbitzua ematen zutenak; 2011ko otsailetik aurrera zerbitzu hori Garbitania Zero Zabor, SL enpresak fakturatzen du. (Ikus A.7).
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak:** % 34 egin dute gora aztertutako aldian (% 8 eta % 24, 2011 eta 2010eko ekitaldietan, hurrenez hurren); bariazio hauek azpimarratu behar dira:
  - Zerga ikuskaritzako lankidetza lanen fakturazioagatik aitortutako obligazioak 126.419, 540.613 eta 261.791 eurorenak izan dira 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietan, hurrenez hurren, zerga ikuskaritzak ondorioztaturiko eta egiaz aitorturiko kuoten arteko aldearen gainean, jarritako zehapenen gainean eta ikuskatutako 4 ekitaldietako JEZ eta EIOZ zergen berandutza interesen gainean % 70 eta % 35ari dagozkionak.
  - 2011ko otsailetik aurrera, Garbitania Zero Zabor, SL sozietateak hondakinak biltzeko zerbitzua fakturatzen du eta ekitaldiko gastua 405.162 eurorena izan da. 2009 eta 2010eko ekitaldietan zerbitzu hori Udalak berak gauzatzen zuen aldi baterako kontratazioen bitartez (ikus A.7).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

**Aurrezki gordina:** Magnitude hau % 44 jaitsi da aztertutako aldiaren funtzionamendu gastuen igoera diru-sarrera arruntena baino handiagoa izan delako.

**Aurrezki garbia eta zorpetzea:** Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Zerga zama % 4 igo da aztertutako aldiaren, batik bat “Finantza pasiboak” kapituluaren 2008ko UFFFaren likidazio negatiboaren itzulketaren erregistratu izanaren ondorioz, 219.131 euroren urteko zenbatekoduna 2009 eta 2010eko ekitaldietan eta 2009ko ekitaldiaren UFFFaren likidazio negatiboari dagokion lehenengo zatikapena, 265.331 euroren 2011ko ekitaldian. Aurrezki garbiari dagokionez, 2011ko ekitaldian 174.805 euroren saldo negatiboa izan dela azpimarratu behar da, izan ere, ekitaldian eskuratutako aurrezki gordina ez da behar hainbatekoa izan finantza zamari eta 2009ko ekitaldiko UFFFaren lehen zatikapenaren itzulketari dagokion ordainketei aurre egiteko.

Zorpetze mailaz esan behar da Udalak zorpetutako finantza zorrak % 32 egin duela gora aztertutako aldiaren, 2010eko ekitaldian beste 2 mailegu hitzartu direlako, guztira 1,2 milioi euroren zenbatekoan. Gainera, gogoan izan behar dugu 2011ko abenduaren 31n Udalak ordaintzeko duela Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren 2009ko behin-betiko likidazioaren zati bat, 530.662 euroren zenbatekoa egiten duena.

**Kapital eragiketen emaitza:** Magnitude honek saldo negatiboa izan du aztertutako 3 ekitaldietan. 2011ko ekitaldiko kapital eragiketen kontzeptuan aitortutako obligazioak inbertsioak elkarfinantzatzeko transferentziei eta aurreko ekitaldietan aurreikusi eta esleitutako obrei dagozkie.

**Eragiketa ez finantzarioen emaitza:** 2011ko ekitaldiak, aurrekoek ez bezala, saldo negatiboa du, izan ere, ekitaldi horretan behera egin dute aurreko ekitaldiekiko bai aurrezki gordinak, bai kapital eragiketen emaitzak ere.

**Diruzaintza geldikina:** Magnitude honek % 58 egin du behera 2011ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekiko. Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak 2011ko abenduaren 31n 839.632 euroren saldo negatiboa du, HKEEk eskuratutako doiketen eragina aintzat hartzen badugu.

**Ondorioa:** Udal Administrazioek egiten dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia, diruzaintza geldikinak eta diru-laguntza bidez edo zorpetze berri baten bidez eskura dezaten kanpoko finantzaketa.

Usurbilgo Udalak aurrezki garbi negatiboa izan du 2011ko ekitaldian, batik bat, hasierako aurreikuspenen aldean UFFFetik eskuratutako diru-sarrerak % 13 txikiagoak izan direlako.



Honi gehitu behar diogu Udalaren Aurrekontu Likidazioan barne hartutako Diruzaintza Geldikinak nabarmen egin duela behera eta HKEE honek proposatutako doiketen ondoren, 2011ko abenduaren 31n Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak saldo negatiboa erakutsi duela. Horrek guztiak Udala etorkizunera begira inbertsioei aurre egiteko finantzaketa propioa sortzeko oso eszenategi zailean jartzen du; berebat, ahalegin gehigarria eskatzen dio 2009ko UFFFri dagokion itzulketari eta etorkizuneko finantza zamei aurre egiteko. 2011ko abenduaren 31n zor bizia % 30ekoa da ekitaldi horretan kitatutako sarrera arrunten gainean.

2012ko ekitaldirako Udalak aurreko ekitaldiko aurrekontuekiko % 21eko aurrekontu txikiagoak onetsi ditu, gastu arruntari eutsiz (% 6 txikiagoa) eta inbertsio maila nabarmen murriztuz. Aurrekontu oreka lortzeko UFFFetik eratorritako sarrerak aurreko urteko likidazioarekiko % 13 igotzea aurreikusi da eta presio fiskal handiagoa izatea, tipo zergagarriak eta tasa eta prezio publikoen tasen tarifak igo direlako.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

2011-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOB.R.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1. Zerga zuzenak .....	A.3	3.002	-	3.002	2.738	2.507	231	91
2. Zeharkako zergak .....	A.3	645	-	645	439	311	128	68
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	1.577	10	1.587	1.699	1.526	173	107
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	4.947	-	4.947	4.529	4.264	265	92
5. Ondare sarrerak .....		19	-	19	5	4	1	26
6. Inbertsio errealen besterentzea .....	A.5	2.207	-	2.207	1.650	1.588	62	75
7. Kapitalezko transferentziak .....	A.4	1.507	-	1.507	964	224	740	64
8. Finantza aktiboak .....		-	2.233	2.233	-	-	-	(*) -
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>13.904</b>	<b>2.243</b>	<b>16.147</b>	<b>12.024</b>	<b>10.424</b>	<b>1.600</b>	<b>(*)86</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUA	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileria gastuak .....	A.6	3.571	-	3.571	3.270	3.258	12	92
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak.	A.7	4.749	206	4.955	4.442	3.798	644	90
3. Finantza gastuak .....	A.10	53	-	53	53	53	-	100
4. Transferentzia arruntak .....	A.8	1.355	15	1.370	1.283	1.170	113	94
6. Inbertsio errealak .....	A.9	3.401	1.324	4.725	2.855	2.077	778	60
7. Kapitalezko transferentziak .....	A.8	222	680	902	725	118	607	80
8. Finantza aktiboak .....	A.9	-	18	18	18	18	-	100
9. Finantza pasiboak .....	A.10	553	-	553	536	536	-	97
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>13.904</b>	<b>2.243</b>	<b>16.147</b>	<b>13.182</b>	<b>11.028</b>	<b>2.154</b>	<b>82</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>(1.158)</b>			

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOB.R./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Zordunak .....	A.11	5.821	598	2.262	2.961
Hartzekodunak .....		1.867	-	1.866	1
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(598)</b>		



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	12.024
Aitortutako obligazioak.....	(13.182)
<b>AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(1.158)</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(598)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(1.756)</b>
Finantzaketa desbideratzeak .....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	1.664
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>(92)</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikina 11.1.1ean .....	2.617
Aurrekontuaren emaitza .....	(1.756)
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunen bariazioa.....	3
Kaudimengab. zuzkiduraren hornid. bariazioa.....	245
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 2011.12.31-N</b>	<b>1.109</b>
Diruzaintza .....	1.294
Aurrekontuko zordunak.....	4.561
Aurrekontuz kanpoko zordunak (A.12).....	14
Aurrekontuzko hartzekodunak .....	(2.155)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (A.12).....	(1.042)
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak.....	(29)
Kaudimen-gabeziatarako hornidurak (A.11).....	(1.534)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 2011.12.31-N</b>	<b>1.109</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>	<b>1.109</b>
<b>11.12.31-N ZORPETZEA (A.10)</b>	<b>2.815</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2010 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	31/12/11	31/12/10	PASIBOA	ERANSKINA	31/12/11	31/12/10
<b>IBILGETUA</b>		<b>20.112</b>	<b>17.554</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>		<b>18.678</b>	<b>17.093</b>
Erab. Orok. emandako ibilg.....	A.9	3.537	2.715	Ondarea.....		9.960	9.960
Ibilgetu ezmateriala.....	A.9	381	(1.903)	Erabilera orokorrerako ondarea .....	A.9	(14.089)	(14.089)
Ibilgetu materiala .....	A.9	16.047	16.613	Ekitaldi itxien ondorioak .....		21.222	20.384
Ibilgetu finantzarioa .....	A.9	147	129	Galera-irabaziak .....		1.585	838
<b>ZORDUNAK</b>		<b>3.004</b>	<b>4.055</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>		<b>3.362</b>	<b>2.826</b>
Aurrekontuzkoak.....	A.11	4.561	5.821	Zorrek e/luz.....	A.10	3.336	2.800
Askotariko zordunak.....	A.12	14	13	Bermeak eta gordailuak e/luz .....	A.12	26	26
Entitate publiko zordunak.....	A.12	(37)	-				
-Kaudimengabeziatarako zuzkidura	A.11		(1.534)	(1.779)			
				<b>HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA</b>		<b>2.370</b>	<b>2.853</b>
				Aurrekontuko hartzekodunak .....		2.155	1.868
				Sarrerren itzulketeng. hartzekod.....		29	31
<b>FINANTZA KONTUAK</b>		<b>1.294</b>	<b>1.163</b>	Bestel. hartzekodun ez aurrekontuk. .	A.12	421	24
Diruzaintza .....		1.294	1.163	Erakunde Publiko hartzekodunak .....	A.12	162	250
				Zorrek epe lab. ....	A.10	(493)	578
				Bermeak eta gordailuak e/lab. ....	A.12	96	102
<b>AKTIBOA</b>		<b>24.410</b>	<b>22.772</b>	<b>PASIBOA</b>		<b>24.410</b>	<b>22.772</b>

2010 ETA 2011-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

GASTUAK	2011	2010	SARRERAK	2011	2010
Langileria gastuak .....	3.273	3.518	Negozio zifr. zenbateko garbia	1.150	1.063
Kanpoko zerbitzuak .....	4.439	4.119	Zerga zuzenak .....	2.738	2.985
Emand. transf. eta dirulag.....	2.008	1.399	Zeharkako zergak .....	439	370
Amortizaziorako zuzkidura.....	(752)	1.889	Jasotako transf. eta dirul.....	5.493	6.675
Kaudimengab. zuzkid. aldak .....	(245)	1.412	Kudeak. beste sarrera batzuk...	1.138	1.318
<b>USTIAKETA MOZKINAK</b>	<b>2.235</b>	<b>74</b>			
Finantza gastuak.....	53	58	Finantza sarrerak .....	1	3
			<b>EMAITZA FINANTZARIO NEG.</b>	<b>52</b>	<b>55</b>
Urtealdi itxien gtu.-galerak.....	598	3	Ekitaldi itxien sarr. eta moz. ...	-	822
<b>AURREK. ITXIEN EMAITZA POSIT.</b>	<b>-</b>	<b>819</b>	<b>EKIT. ITXIEN EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>598</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN MOZKINAK</b>	<b>1.585</b>	<b>838</b>		<b>-</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.2 KIROLETAKO UDAL PATRONATUA

2011-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE.	KOBRA.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	289	-	289	261	261	-	90
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	586	69	655	657	588	69	100
5. Ondare sarrerak .....		1	-	1	(2)	(2)	-	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>876</b>	<b>69</b>	<b>945</b>	<b>916</b>	<b>847</b>	<b>69</b>	<b>97</b>

Euroak milakotan

GASTUA	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	
1. Langileria gastuak .....	A.6	119	-	119	117	110	7	98
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak.	A.7	663	-	663	633	623	10	95
4. Transferentzia arruntak .....	A.8	94	-	94	86	56	30	91
6. Inbertsio errealak .....		-	69	69	69	56	13	100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>876</b>	<b>69</b>	<b>945</b>	<b>905</b>	<b>845</b>	<b>60</b>	<b>96</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>11</b>			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOBRA./	AZKEN	
		ZORRA			BALIOG. ORDAIN.
Zordunak .....		128	-	128	-
Hartzekodunak .....		38	-	38	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			-		





Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	916
Aitortutako obligazioak.....	(905)
<b>AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>11</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>11</b>
Finantzaketa desbideratzeak .....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	-
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>11</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza .....	103
Aurrekontuko zordunak.....	69
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	-
Aurrekontuko hartzekodunak .....	(60)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak .....	-
Kaudimengabeziarako zuzkidura.....	-
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 2011.12.31-N</b>	<b>112</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA</b>	<b>112</b>
<b>ZORPETZEA 11/12/31-N</b>	<b>-</b>



## ALEGAZIOAK

### II. IRITZIA

#### II.1. UDALA

##### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

###### Kontratazioa

1.- Zerga-ikuskaritzako asistentzia teknikorako eta lankidetzarako zerbitzuari buruz II.1.1.1 goiburuak dioenari buruz beharrezkoa da nabarmentzea *a priori* eginiko gastuen kalkulua ezin izan zela benetako gastuetan oinarritu, Usurbilgo Udalean ez zelako aurretik inoiz ikuskatze-lanik egin. Zerbitzu berri baten lehen ezarpena zen, beraz, eta ez zegoen zerga-ikuskaritzaren emaitzak jakiterik.

Udaleko kontu-hartzailletza arloko langileek kontratatutako asistentzia teknikoarekin batera eginiko ikuskapen-lanetatik eskuratutako emaitza onak ikusita, bistakoa da emaitzak aurretik egindako kalkuluak baino askoz hobeak direla eta emaitzak Udalarentzat oso onak direla eta, hein txikiagoan, kontratatutako aholkularientzat ere bai.

Udalaren iritzi, ezin da ondorioztatu administrazioaren kontratazioaren printzipioak urratu direnik; izan ere, aurrez ikusitakoak baino asko zerga-emaitza hobeak lortu dira, Udalaren mesedetan.

Usurbilgo Udala ari da Zerga Ikuskaritzarako Plana gauzatzen, ezin baitira agintea baliatzea dakarten zerbitzu publikoen kudeaketa zeharka gauzatu; hala xedatzen du Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legearen 85.3 artikulua. Udaleko funtzionarioek egin behar dute Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 7/2007 Legearen 9.2 artikulua araber. Enpresak laguntzeko eta aholkuak emateko lanak bakarrik egin behar ditu, hala dagokionean.

Azkenik, aipatu nahi dugu kontratu hori esleituta dagoela kontratazio-araudian araututako prozedura irekia aplikatuz.

2. A-34 Sekaña eremuan eta S-6 Agerreazpi sektorean babes ofizialeko etxebizitza eraikitza bideratutako bi lursailen ondare mailako besterentze-kontratuarekin lotutako II.1.1.2 epigrafean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak zehaztu du lizitazioaren zenbatekoa (860.000 euro) udaleko zerbitzu teknikoek egindako tasazioa baino txikiagoa dela (992.122 euro) eta, prezioaren irizpidea zehazteko, pleguek matematikako formula bat jasotzen dutela. Horren bidez, lizitazio-tasa hobetu egin daiteke gehienez 135.000 euroko zenbatekora arte prezioaren hobekuntzarekin lotutako muga hori espedientean justifikatuta egon gabe, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araber, lurzorua onorio-balioaren araber finkatutako muga handiagoa da.

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da babes publikoko etxebizitzaren erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 7. artikulua xedatutakoa betez (2008ko urriaren 28ko EHAA), babes ofizialeko etxebizitzako sustapenetara bideratutako lurren balioa aplikagarria den legeriak ezarritako lurren balorazioko arauak aplikatuz eratorritakoa izango dela.



Espedientean azaltzen diren udaleko txosten teknikoek, dagokion balorazioa egin ahal izateko, 2003ko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Agindua, ondasun higiezinak eta finantza-helburu jakin batzuetarako eskubide jakin batzuk baloratzeko arauei buruzkoa, urriaren 4ko EHA/3011/2007 Aginduak aldatua, hartu zuten erreferentziatzat. Zehazki, hondar-metodoa erabiltzen duena da; horren bidez, hondar-balioa deitzen zaion balio teknikoa kalkulatu eta, horri esker, ondasun jakin baten merkatuko balioa zein haren hipoteka-balioa zehatz daitezke.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar lehen aipatu dugunaz gain, 39/2008 Dekretuko 7.1.b) artikulua babes ofizialeko etxebizitzarako lurzoru urbanizatuaren ondorioaren balioari dagokion hurrengo muga finkatzen duela. Horren arabera, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, mugak ezin du gainditu etxebizitzaren eta babestutako gainerako eraikinen salmentarako gehieneko prezioaren % 20ko muga. Garrantzitsua da nabarmentzea Dekretuak lurzoru urbanizatuaren balioa aipatzen duela.

Bi alderdi horien interpretazio bateratutik, hau da, 2003ko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Agindua ezarritako metodoen arabera kalkulatuak lurzoruaren hondar-balioa eta, aldi berean, aintzat hartuta BOE-erako lurzoru urbanizatuaren ondorio den balioak inola ere ezingo duela erregimen orokorreko BOE-aren salmentarako gehieneko prezioaren % 20ko muga gainditu, eta balorazioarako udaleko txosten teknikoetan zehaztutakoaren arabera, bi lursail horiek esleitu dira 995.000 euroko (gehi BEZa) zenbatekoaren truke; hau da, udaleko txosten teknikoetatik ondorioztatutako tasazio-prezioaren gaineratik esleitu dira (857.073,42 euro). Ez da egia Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txosteneko baieztapena tasazio-balioa 992.121,58 eurokoa dela dioenean; izan ere, A-34ko B-4 lursailerako zehaztutako lurzoru urbanizatuaren ondorioaren balioa 658.883,64 eurotan mugatzen duen 39/2008 Dekretuko 7. artikulua xedatutakoaren arabera, kontuan izan behar da 395.753,89 euroko zenbatekoa urbanizazio-kargei dagokiena dela kontratazio-espeditentean eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizatutako hirigintzako espeditentean zehaztutako datuen arabera. Hori kontuan hartuta, balioa 263.129,75 eurokoa da eta horri S-6 sektoreko lursailaren balioa gehitzen badiogu, tasazio-balioa 857.073,42 eurokoa dela ondoriozta dezakegu eta lizitazio-prezioa 860.000 euroan finkatu da; hau da, tasazio-balioaren gaineratik.<sup>1</sup>

Bestalde, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak prezioa zehazteko irizpiderako matematikako formula bat gehitu dela adierazi du. Bere esanetan horri esker, lizitazio-tasa hobetu daiteke 135.000 euroko gehieneko zenbatekora arte eta espeditentean ez dago justifikatuta prezioa hobetzearekin lotutako muga hori. Horrekin lotuta, adierazi beharrekoa da Udalak prezioarekin lotutako irizpiderako matematikako formula bat ezarri duela tarteen arabera lizitazio-tasa hobetu ahal izateko zehaztutako gehieneko kopuru horretara arte. Horren bidez, Udalak bi helburu lortu ditu: alde batetik, lurzoruaren prezioa hobetzea tasazio-prezioaren gaineratik; eta, bestetik, ez dago proposamen teknikoarekin, eraikuntzaren kalitatearekin edo energia aurrezteko irtenbide teknikoekin (besteak beste) lotutako ezinbesteko beste alderdi batzuetan inolako murrizketarik. Prezioarekin lotutako irizpidean

<sup>1</sup> Lursailen salmentarako abiarazitako prozedurak agintzen du salmenta urbanizazio zamarik gabe gauzatuko dela eta udal arkitektoaren txostenaren arabera, Sekañoako A-34 guneko lursailaren urbanizatuak lurzoruaren eragin-balioa 398.178 eurorena zen eta Agerraizpi S-6 sektorearena, berriz, 593.944 eurorena.



hobetzeko muga ezartzea ez dela legez kontrakoa uste dugu; eta, bestalde, ez dirudi logikoa kontratazio-organoak prezioaren irizpidean lortu beharreko puntuazioarekin lotutako gehieneko ataria jartzeko aukerarik ez izatea lehen aipatu dugun moduan, atari hori lizitatzailleek kontratatu nahi den prestaziorako ezinbestekoak diren gainerako alderdietan kalte esanguratsurik izan gabe hobetu dezaketen gehienekoa dela uste baitugu. Kasu honetan, Udalak erabili duen prozedura aholkatzen duten oinarri sendoak edo interes publikoko arrazoiak daude. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da besterentze horren helburu espezifikoa interes publikoarekin lotutakoa dela ondasun horiei eman nahi zaien xede zehatza dela eta. Hori dela eta, garrantzitsuena interes edo helburu publiko hori lortzea da eta garrantzi osagarria litzateke ondasun hori diru-sarreraren iturri bihurtzea. Horrekin lotuta, bistakoa denez, ezin da ahaztu (lehen aipatu dugun moduan) Udalak bi lursail horiek esleitu dituela tasazio-preziora baino zenbateko handiagoaren truke. Besterentzeak helburu bat du eta hori lortzeko baliabidea baino ez da.

Bi lursail horiek besterentzearen helburu espezifikoa bertan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea zen; hau da, erregimen juridiko bereziaren arabera etxebizitzak, babes ofizialekoak. Etxebizitza horiek ezaugarri bereziak, metro koadro kopuru zehatza eta tipologia espezifikoa dituzte. Administrazio kontratugileak bere eskuduntza espezifikoko helburu publikoa betetzen du zuzenean eta berehalako moduan 7/1985 Legeko 25.2.d) eta k) artikuluek xedatutakoa betez. Azken finean, kontratuaren kausa etxebizitzara sarbidea izateko aukera gutxien duten Usurbilgo herritarrei horretarako sarbidea erraztera zuzendutako interes publikoa asebetetzeko helburuak osatzen du. Horren arabera, etxebizitza arloko jarduera babestuak bultzatzen ditu. Horrekin lotuta, Auzitegi Goreneko jurisprudentziak interes publikoko helburu hori kanporatzeko honako hau eskatu du orain arte: lizitazioa arautzen duten baldintzen pleguan eta, dagokionean, salmenta formalizatzen duen eskritura publikoan hala zehazteko, espediente honetan gertatzen den moduan.

Testuinguru hori ulertzen laguntzeko datu gisa, aipagarria da Udal honen helburu nagusietako bat izan dela lehen etxebizitzarako eskaera handiari erantzuna ematea eta, horretarako, alokairu sozialeko etxebizitzaren kopuru handia eskaini izan du. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin dagokion hitzarmenak izenpetu zituen. Horien arabera, helburu horretarako konpromisoa hartu zuen hurrengo 50 urteotarako eta, trukean, etxebizitza bakoitzeko, 40.000 euroko ordaina jaso zuen. Gaurko egunez, udalerrria alokairu sozialeko erregimenean 23 etxebizitza arte eskaintzeko moduan dago eta parke hori neurri handiagoan handitu nahi du. Etxebizitza horietako gehienak ALOKABIDEk, VISESAren (Eusko Jaurlaritza) mende dagoen enpresa mistoak kudeatzen ditu.

Hori dela eta, honako galdera hau egin nahi dugu: zer balorazio egingo luke Herri Kontuen Euskal Epaitegiak A-34 B4 eremuko orubea alokairu sozialeko erregimeneko etxebizitzetara bideratzeko helburua gauzatu balitz? Horixe bultzatzen zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eta bat datozen helburuak direla eta, udal-gobernuak ere ORUBIDERi (VISESA) hiru urtez hala eskatu zion, BOEra bideratu arte.

Udal honen ustez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, eragiketaren azterketa irizpide ekonomikoak soilik kontuan hartuta aztertu duenez, albo batera utzi du eragiketa honen errentagarritasun sozialarekin lotutako faktorea. Faktore horrek bistako garrantzia izan du



Udalaren lanean eta udaletako arduradunek beti kontuan izan beharko lukete erabakiak hartzeko garaian, orain lantzen ari garen kasuan gertatu den moduan.

Ez dugu ahaztu behar, era berean, babes publikoa nagusi den esparrua dugula aurrean eta, horrenbestez, balorazioaren xede diren higiezin salmentarako prezioa mugatzen duen legezko erregimena dagoela. Espediente honetan zorrotz errespetatu dugu hori.

Bestalde, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako txostenean, aipatutako lursail horiek besterentzea oinarri duen kontratazio-espediente honez gain, haietako bakoitzaren inguruko hirigintzako espedienteak ere sakon aztertu ditu. A-34 Sekaña eremuko lursailari dagokionez Herri Kontuen Euskal Epaitegiak nabarmendu du lursail hori Usurbilgo Udalari esleitu zitzaiola birpartzelazioko proiektuaren behin betiko onarpenaren bidez Alkatetzak 2007ko urtarrilaren 12an onartu zuen Dekretuari esker. Haren balorazioa 2,6 milioi eurokoa izan zen 5. Eranskinean ikus daitekeen moduan (inola ere ez da azaltzen era horretan zehaztuta birpartzelazioko proiektu osoan) eta 20 etxebizitza libre eraikitzea aurrez ikusi zen bertan. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak lurzoru urbanizatuaren eraginezko balioen aipatutako zenbatekoa ondorioztatu du. Balio horiek, aldi berean, dagokion matematikako formularen bidez lortu dira eta, besteak beste, salmenta-merkatuko batez besteko balioa eta eraikitze kostuak jasotzen ditu. Horiek guztiak 2006ko iraileko datuen arabera dira (onartu ahal izateko Udalean birpartzelazio-proiektua aurkeztu zeneko data) eta urbanizazioko gastuak deskontatu dira (birpartzelazio-proiektuko datuen arabera, haren behin-behineko likidazioa lehen aipatutako 395.753,89 euroko da). Hori guztia, alde batetik, birpartzelazio-proiektuan aurkeztutako hurrengo datuen arabera egin da: etxebizitzako erabileretarako 960,00 euro/m<sup>2</sup>-ko eraikitze-kostua eta 3.000 euro/m<sup>2</sup>-ko salmentako balioa aurrez ikusi dira. Hori dela eta, lurzoru urbanizatuaren 1.213,91 euro/m<sup>2</sup>-ko ondoriozko balioa lortu da eta 2.380,70 m<sup>2</sup>-ko bizitegi-erabilerako azaleraren arabera, guztizko zenbatekoa 2.889.955,50 eurokoa da. Bestalde, garajearen/trastelekuaren erabileretarako, 310,00 euro/m<sup>2</sup>-ko eraikuntzako kostua eta 600,00 euro/m<sup>2</sup>-ko salmenta-balioa aurrez ikusi dira. Horrenbestez, lurzoru urbanizatuaren ondoriozko balioa 124,78 euro/m<sup>2</sup>-koa dela esan dezakegu eta 799 m<sup>2</sup>-ko garajerako/trastelekurako erabilera-azaleraren arabera, guztizko zenbatekoa 99.699,22 eurokoa da. Bi zenbateko horiek batzen baditugu, guztizko zenbatekoa 2.989.654,70 eurokoa dela ondoriozta dezakegu eta, beste behin, zenbateko horri urbanizazioko gastuak deskontatu behar zaizkio: 395.753,89 euro. Horrenbestez, zenbatekoa 2.593.900,80 eurokoa da (Herri Kontuen Euskal Epaitegiak zehaztutako datuen arabera, 2,6 milioi eurokoa da; hori dela eta, datu hori zuzendu behar izateaz gain, zuzendu beharrekoak dira 5. Eranskinari dagokion epigrafean behar bezala zehaztuko ditugun datu ugariak).

Horrekin lotuta, beharrezkoa da azpimarratzea aurreko datuak 2006ko irailean egindako tasazio batetik eratorritakoak direla eta, horrekin lotuta, bistakoa da hurrengo urteotan krisi ekonomikoa jasan dugula eta, horrenbestez, hirigintzako merkatuak krisiaren ondoriozko bilakaera jasan duela. Zehaztu beharrezkoa da azken urteotan etxebizitza libreen salmentak izan duen bilakaera ikusita (erabateko geldialdia jasan du eta, noski, 2011. urtean inola ere ezin zitekeen imajinatu 3.000 euro/m<sup>2</sup>-ko balioa izaterik) eta, bestalde, udalerriko BOEko eskaerari irtenbidea eman ahal izateko asmoz (eskaera horri erantzuna, azken aldiz, 2003-2004an eman zitzaion babes ofizialeko 4 etxebizitzako sustapenarekin), Usurbilgo Udalak, bere eskuduntzak oinarritzat hartuta eta errentagarritasun sozialeko helburuarekin,



aiapatutako lursailean 22 BOE eraikitzea ahalbidetuko zukeen hirigintzako espedientea izapidetu zuen. Lurzoruaren Udal Ondareko ondasunak besterentzea xede duenez, lursailen esleipen-garaian aplikagarri zen erregulazioaren arabera helburua eman ziezaiekeen Udalaren ondarea osatzen zuten ondasun higiezinak. Hori dela eta, administrazio-baldintzen pleguan jasota dagoen eta lortu nahi den helburu espezifiko honako hauetan xedatutakoaren arabera da, hau da, babes publikoko erregimenen baten mende dauden etxebizitzak eraikitzea xede duena: Lurzoruaren Udal Ondareari buruzko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 111. artikulua eta hurrengoak; Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriak jasotzen dituen 2008ko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 37. artikulua eta hurrengoak; eta lurzoruaren legeko testu bategina onartzen duen 2008ko ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuko 38. artikulua eta hurrengoak.

Bestalde, bi lursail horiek besterentzeko espediente hau aplikagarria den hirigintzako legerian (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 116. artikulua) xedatutakoa betetzeko egin da.

Aurreko bi epigrafeetan egindako alegazioak kontuan hartuta, Udal honen ustez, bere jardueran ez da legeriarekin lotutako ez-betetzerik izan.

## **II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epigrafe honekin lotuta, zehazki lehen paragrafoaren amaieran, honako xehetasun hau egin behar dugu:

2009 eta 2011 ekitaldietako Udal Finantzaketarako Foru Fondoko (EFFF) likidazio negatiboen itzulketak helburu horrekin eta Gipuzkoako udal guztietarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundeekiko Konpromisoen eta Udalenzako Laguntzaren Zerbitzuak emandako kontularitzako argibideei zorroztz jarraituta kontabilizatu ziren. Horrekin lotuta, Udalak egokitzat jotako Diruzaintzako Soberakineko doikuntzak egin ditu bere eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontularitzako irizpideen arabera. Irizpide horiek eztabaidagarriak izan daitezke, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren irizpidea eztabaidagarria izan daitekeen bezalaxe.

## **II.2. UDAL KIROL PATRONATUA**

### **II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **Orokorra**

Udal Kirol Patronatuak legea betetzeari buruzko epigrafe honi dagokionez, ondorengo hau adierazi behar dugu:

Patronatuak giza baliabide eta baliabide material mugatuak izateak (2 pertsona bakarrik urtean 950.000 euroko aurrekontua kudeatzeko) zaildu egin du fiskalitateari, kontabilitateari eta kontratuei dagokien araudia formalki osorik betetzea. Udala jabetzen da zailtasun horiez eta Udal Kirol Patronatua tokiko organismo autonomoa desegin egin du eta Udalean txertatu du (hasierako onarpena 2012ko urriaren 16ko Udalbatzaren erabakiaren bidez. Behin betiko



onartutzat hartu da, ez baita jendaurrean jarritako aldiaren erreklamaziorik eta/edo iradokizunik jaso). Honi erantsita doa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013ko urtarrilaren 31n Organismo Autonomoa desegiteari buruz argitaratutako iragarkia (1 dokumentua). Ikusi ditugun mugak eta zailtasunak konpontzeko egin dugu hori guztia.

## Aurrekontua

Aipatutako arazoa konponduta dago jada, Udal Kirol Patronatuaren aurrekontuan eta Usurbilgo Udalaren aurrekontuan aldaketa bat egin baitugu.

## Kontratazioa

II.2.1.3 epigrafeari dagokionez eta, ondorioz, 15. eranskinean adierazitakoari dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak dio kirol-instalazioak garbitzeko eta Oiarde kiroldeko kontrol eta administrazio-lanak egiteko zerbitzuen kontratuak lizitazioek (Udal Kirol Patronatuak egin ditu lan horiek 4 urteko aldirako, eta beste 2 urtez luza daitekeen aldirako) ez dutela publizitaterik izan ez Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, ez eta BOEn ere.

Horrekin lotuta, Patronatuak izan dituen baliabide pertsonal eta material mugatuak direla eta kontratu mailako araudia formalki osorik betetzea zaila izan dela esan behar dugu berriz ere. Dena den, Organismo Autonomoa desegin eta ondoren Udalean txertatu denez, eraginkorragoa izango da alderdi horiek udaleko zerbitzu tekniko-juridikoetakoek zaintzea.

Kirol-instalazioak garbitzeko zerbitzuaren kontratuari buruzko II.2.1.4 epigrafeari dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak adierazi du 2011ko azarotik aurrera zerbitzua hedatuta dutela eta horrek hileko igoera ekarri duela eta kontratuaren aldaketa ez dela behar bezala izapidetu, ez eta onartu ere.

Horren harira adierazi behar dugu ukaezina dela kontratuaren xedea hedatu egin dela Oiarde kiroldegia handitzearen ondorioz (Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizatutako espedienteak), eta horren exekuzioa, gutxi gorabehera, kirol-instalazioen garbiketa-zerbitzua hedatu zen unean bukatu zela (hedatutako tokia ere garbitu ahal izateko). Ondorioz, prezioa ere igo egin zen.

Udaleko zerbitzu tekniko-juridikoetakoek egoeraren berri izan zutenean, Udal Kirol Patronatuari gomendatu zioten zegokion kontratuaren aldaketa izapidetzeko eta onartzeko. Hortaz, Udal Kirol Patronatuak kontratua aldatu du zerbitzua hedatzeak ekarritako prezio igoera-kontratuan azal dadin. 2012ko ekainaren 19an sinatu zuten kontratua, urtarriletik aurrera atzeraeraginezko izaerarekin. Horrela arautu dira espreski esan gabe edo modu tazitoan onartu diren aldaketak.

Dena den, Organismo Autonomoa desegin eta ondoren Udalean txertatzeari buruz esandakoa betez, aurrerantzean, egingarriagoa eta eraginkorragoa izango da alderdi horiek udaleko zerbitzu tekniko-juridikoetakoek zaintzea.





## II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epigrafe honi dagokionez, beharrezkoa da ondorengo aipamen hau egitea:

Patronatuak giza baliabide eta baliabide material mugatuak izateak (2 pertsona bakarrik urtean 950.000 euroko aurrekontua kudeatzeko) zaildu egin du fiskalitateari eta kontabilitateari dagokien araudia formalki osorik betetzea. Udala jabetzen da zailtasun horiez eta Udal Kirol Patronatua Tokiko Organismo Autonomoa desegin egin du eta Udalean txertatu du (hasierako onarpena 2012ko urriaren 16ko Udalbatzaren erabakiaren bidez. Behin betiko onartutzat hartu da, ez baita jendaurrean jarritako aldiareklamaziorik eta/edo iradokizunik jaso). Honi erantsita doa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013ko urtarrilaren 31n Organismo Autonomoa desegiteari buruz argitaratutako iragarkia. Ikusi ditugun mugak eta zailtasunak konpontzeko egin dugu hori guztia.

II.2.2.1. epigrafearen bigarren atalari dagokionez, hau da, Udal Kirol Patronatuaren 2011 ekitaldiko finantza-kontuen hasierako eta amaierako saldoen arteko bat ez etortzeetan detektatutako errore aritmetikoei erantzunez, honi erantsita doakizue aipatutako aurrekontu-likidazioaren dokumentazioa eta hor sartuta dago aurrekontuaren exekuzioa, gastuak eta diru-sarrerak, gastuen eta diru-sarreraren laburpena, diruzaintzaren egoera, diruzaintzako soberakina, bankuko mugimenduak eta lehen aurkeztutako likidazioarekin bat etortzea, berrikus ditzazuen. Era berean, honi erantsi diogu 2011ko amaierako likidazio-dekretu zuzena.<sup>2</sup>

Epigrafe bereko hirugarren atalean adierazitakoari dagokionez, adierazi behar dugu likidazioaren barruan aurrekontutik kanpoko hartzekodunen epigrafera birsailkatu direla 2011ko abenduaren 31n PFEZ eta gizarte-aseguruengatik kitatzeko zeuden zorrak.

II.2.2.2. epigrafeari dagokionez, zehaztu beharra daukagu 2011ko aldietan kontuhartzaitza funtzioak egin dituzten bi pertsonak, unean uneko fiskalizazio- eta ikuskaritza-funtzioak egin dituztela kontabilitatean eta finantza-kontrola ere egin dutela Udal Kirol Patronatuko gerentearekin batera. Baina Udal hau ez dator bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean, adierazitako legezko xedapenek (batez ere, 1174/1987 Errege Dekretuaren 4. artikulua) ezarritakoa ez dela betetzen dioen iritziarekin. Izan ere, aipatutako aldiaren kontuhartzaile postuan egon diren tokiko bi funtzionarioek, Estatuko gaikuntza dutenek, Errege Dekretu horretan jasotako ondorengo funtzio hauek bete baitituzte:

Ekonomia-finantzen eta aurrekontuaren kudeaketaren barne-kontrolaren eta fiskalizazioaren funtzioak ondorengo hauek hartzen ditu:

- a. Eduki ekonomikoa duten edo finantza edo ondare arloko ondorioak izan ditzaketen eskubideak eta betebeharrak aitortzea dakarren ekitaldi, dokumentu edo espediente

<sup>2</sup> Likidazio berria 2013ko otsailaren 11ko Alkatetza Dekretu bidez onetsi da, txosten honi alegazioak jartzeko aldiaren zehar, eta honenbestez, Epaitegi honek ez du fiskalizazio-gai izan.



- ororen fiskalizazioa, legeak aurrez ikusitako baldintzetan eta horri dagokion txostena igorri behar da edo, bestela, aurkitutako eragozpenak jakinarazi.
- b. Ordainketa-aginduaren eta gauzatze materialaren esku-hartze formala.
  - c. Obretara, horniketetara, eskuratzeetara eta zerbitzuetara bideratutako kopuruak aplikatzen direla ikusteko egiaztatze formala.
  - d. Justifikatzeko igorritako aginduen egiaztagiria jasotzea, aztertzea eta zentsuratzea.
  - e. Diru-sarreraren esku-hartzea eta zerga-kudeaketako ekintza guztien fiskalizazioa.
  - f. Zordunen aurka ez ordaintzearen egiaztagiria igortzea, errekursoen, norainokoen edo ez-ordaintzeen bidez.
  - d. Aurrekontu-proiektuen eta kredituak aldatzeko espedienteen txostena.
  - h. Ekonomiararen, finantzen edo aurrekontuen arloan Presidentetzak edo zinegotzien herenak eskatutako edo legeak gehiengo berezia eskatzen duten gaietako txostenak, irizpenak eta proposamenak igortzea; baita zerbitzu berrien jatorriari edo lehendik daudenen aldaketaren jatorriari buruzko irizpena, proposamenek ekonomian eta finantzetan dituzten ondorioak aztertzea. Eztabaidan aurrekontuetan izango dituen ondorioak zalantzan egon daitezkeen gairen bat ateratzen bada, presidenteari eskatu ahal izango diote Udalbatzari aholkuak emateko aukera.
  - i. Barne-ikuskapeneko egiaztapenak edo prozedurak egitea entitatearen menpeko organismo autonomoetan edo merkataritza-sozietateetan aurretiazko esku-hartzeari lotu gabeko eragiketetan eta horien finantza-kontrola, dagozkien xedapenak eta arauak eta Udalbatzak hartutako erabakiak betez.

2012ko martxoaren 3an, Ogasun Batzordean udal kontu-hartzaileak adierazi zuen Kirol Patronatuan finantza arloko prozesuak eta kontrolak ezarri beharra zegoela eta ondorengo jaso zuen aktan: "Liobak dio Kirol Patronatua aztertu beharra dagoela, eta patronatuarekin jarraitzea erabakitzen bada ekonomi arloan prozedurak eta kontrolak ezarri behar direla, udaletxean egiten den bezalaxe".

Udal Kirol Patronatuaren desegiteko irizpena Usurbilgo Udalaren 2012ko urriaren 16ko osoko bilkuraren aktan dago sartuta. Irizpen horren arabera, Udaleko kontu-hartzailearen iritziz Udal Kirol Patronatuaren kontuek ez dituzte betetzen arlo ekonomikoan legez ezarritako prozesuak eta ez dute benetako irudia erakusten. Hori dela-eta, Udal Kirol Patronatua desegitea sustatu zuen. Hona hemen irizpenak dioena, hitzez hitz: "Auditoriaren, Kontu Epaitegiaren eta Udaletxeko Kontu-hartzailearen iritziz, Kirol Patronatuko kontuek ez dituzte legezko prozedurak betetzen arlo ekonomikoan, ezta haren irudi lehiala erakusten."

Beraz, konpondu egin dira Udal Kirol Patronatuaren 2011ko ekitaldiko finantza-kontuen hasierako eta amaierako saldoen arteko bat ez etortzeak, Kontuen Epaitegiak II.2.2. epigrafearen 1. atalean adierazitakoa konponduta eta hori nahikoa da Udal Kirol Patronatuaren Kontuei buruz iritzia adierazteko.

Adierazitakoan oinarrituta, justifikatuta eta egiaztatuta dago Udalean kontu-hartzaile izan diren bi funtzionarioek kargu horri atxikitako funtzioak eta erantzukizunak bete dituztela.



### **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

#### **III.1. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

Aztergai dugun atalari (Aurrekontua eta kontabilitatea) dagokionez, ondorioztatu beharrekoa da Herri Kontuen Euskal Epaitegian Usurbilgo Udalari egindako azterketa zehatz eta zorrotzaren ondorioz detektatutako kontabilitateko ustezko "hutsune" guztien batura 1.776.740 eurokoa dela, hau da, behin betiko aurrekontuaren guztizkoaren % 11koa, eta are ehuneko txikiagoa kontabilizatutako guztizko zenbatekoekiko. Kontrako aldera pentsatuta, beraz, eragiketen % 89 behar bezala kontabilizatuta daudela ondoriozta daiteke. Gainera, ustezko hutsune gehienen oinarrian eztabaidagarriak diren kontularitzako irizpideak daude.

Dena den, Usurbilgo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako jarraibideen arabera, ahal den neurrian, kudeaketa-prozedurak eta barneko kontrol-sistemak hobetzeko asmo irmoa du.

#### **III.2. LANGILERIA**

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean adierazitako moduan, Udalaren 2011ko LEPEk urratu egiten du 2011 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2010eko abenduaren 22ko 39/2010 Legean ezarritako ordezkatzeko tasaren % 30eko muga, 15 lanpostu sartzen baititu (ordezkatzeko tasa 0koa dela kontuan hartu behar da). Baieztapen hori egia izan arren, aipatu behar dugu LEP hori onartu ezean lege arloko beste lege-xedapen batzuk ere urratuko lituzkeela Udalak.

2011ko LEPEan hainbat lanpostu zeuden, eta horien jatorria hiru taldetan multzoka daiteke. Alde batetik, 2008ko LEPEan jasotako lanpostuak daude, estali gabe geratutakoak. Beste batetik, administrarien plazak daude, aurretik aipatutako lanpostuen deskribapen- eta balorazio-prozesuaren ondorioz sortu zirenak eta Udaleko administrari laguntzaileek barne-sustapen bidez bete dituztenak. Eta azkenik, plaza batzuen deialdia ez da inongo LEPetan sartu, nahiz eta aurreko urteetan sortutakoak diren.

2008ko LEPEan sartutako eta bete gabeko lanpostuei dagokienez (5 lanpostu), aipatu behar dugu 2008ko LEPen ezin izan zela exekutatu jasotako lanpostu kopurua zela eta (10 lanpostu); izan ere, 2003tik Udalean LEPik ez zen onartu. Hori dela eta, LEP horretako 5 lanposturen deialdia egin gabe zegoela kontuan hartuta, Udalak ez zuen betetzen 2007ko 7/2007 Legeko 70.1 artikuluan ezarritakoa. Artikuluak zehazten zuen lan-eskaintza publikoaren edo antzeko tresna baten exekuzioa 3 urteko epean egin behar dela, eta epea ezin dela luzatu, hau da, kasu honetan, 2011ko irailaren 30a baino lehen egin beharrekoa izango zatekeen. Hori dela eta, 2011ko LEPen jaso ziren plaza horiek, deialdirik gabeko lanpostuak gera ez zitezen, epean exekutatu gabeko LEPetan, legearekiko inkongruentzia hori konpondu nahian.

Bestalde, administrarien plazekin lotuta, zehaztu behar da lanpostuen balorazio eta funtzioen deskribapena egiteko prozesuaren ostean sortu zirela. Hain zuzen ere, sail bakoitzeko banakako azterketa egin ostean, administrarien azpieskalaren berezkoak diren



funtzioak bilduko zituzten administrari-plazak sortzeko beharra zegoela ondorioztatu zen. Dokumentazio administratiboak sortzeko lanak biltzen dituzte funtzio horiek, eta ez mekanografia eta dokumentuen erregistroa egiteko lanak soilik. Administrari laguntzaileen azpieskalako postuetara atxikitako langileek aurretik egiten zituzten funtzio horiek, eta Udalaren antolaketa mailako garapen egokia izateko ezinbestekotzat hartzen ditugu. Hori dela eta, administrari azpieskalako plazak sortu ziren, eta barneko promozio bidez sartu ziren administrari laguntzaileko langileak. Gerora, dagozkion administrari laguntzaileen azpieskalako plazak amortizatu ziren. Beraz, kasu honetan ez da bete beharreko plaza kopurua handitu, baizik eta funtzioekin bat ez zetorkien azpieskala batean zeuden langileen kasuan, haien azpieskalak aldatu dira.

Gainerako plazak (bat izan ezik) sortutako plazak edo funtzionario titularrak 2009an lanpostua utzi duen plazak dira, baina inongo LEPetan sartuta ez zeudenak, eta beraz, Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 23 eta 24 artikulua eta 7/2007 legeko 70. artikuluan ezarritakoa urratzen dute; izan ere, haien arabera, hutsik dauden plazak onartutako lan-eskaintza publikoan sartu behar dira.

Hutsik dauden plaza kopurua handia izatea, batez ere, 2004, 2005, 2006, 2007 eta 2009an LEP deialdirik egin ez izateagatik sortu dela jakinda, eta askotariko arrazoiengatik Udalak sortutako egoera dela jabetuta, 2011ko LEPen helburua egoera hori konpontzea izan zen, eta hutsik zeuden plaza guztiak, inongo LEPetan jaso gabekoak edo exekuzio-epea amaituta zuen 2008ko LEPean jasota zeudenak, LEP bakarrean biltzea.

Beraz, 2011ko LEPekin 38/2010 Legea urratzen dela jakinik ere, hura onartu ezean 7/2007 Legea, Langile Publikoaren Oinarriko Estatutua onartzen duena, eta 6/1989 Legea, Funtzio Publikoaren Euskal Legea, urratuko lirateke.

### III.3. KONTRATAZIOA

III.3. epigrafeari, eta, ondorioz, 15. eranskinari dagokionez, Usurbilgo Udalak azpimarratu nahi du, hasteko, ez dela egia Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 12 kontraturen laginketa egin duenik, gehiago aztertu baititu. Adibide bat azaltzarren, eta kontuan hartuta udalak edo Udal Kirol Patronatuak ez daukatela fiskalizatzeko aurkeztu diren kontratazio-espeditente guztien zerrenda zehatzik, esan dezakegu obra-espeditente bakoitzagatik proiektuko idazketa eta obra-zuzendaritza kontratatze espeditenteak ere fiskalizatu direla.

#### - Espedientea

8. espeditenteari dagokionez, alde batetik, larrialdi-prozeduraren bidez izapidetu zela adierazten da. Kontuan hartu behar da kontratu hori zegokion epean esleitzen ez bazen 127 umek ez zuketela haurtzaindegiko ikasturtea garaiz hasiko. Hori horrela, eta, epaitegiak dion eran, larrialdi-prozeduraren bidez izapidetutako espeditentea ohiz kanpoko izapidetze-prozedura baten bidez lehenago has zitekeela onartzen badugu ere, ezinbestekoa iruditzen zitzaigun hori epearen barruan esleitzea, eta, beraz, emandako izapidetze-modua arrazoituta geratzen dela iruditzen zaigu, *atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditenteek edo interes publikoa dela-eta kontratuen esleipena bizkortu beharra dutenek mota*



horretako izapideak izan ditzaketelako. Espedientean azaltzen da esleipenak baldintza horiek betetzen dituela.

Gauza bera gertatzen da Udal Kirol Patronatuaren 11. eta 12. espedienteekin; izan ere, kiroldegiko garbiketa-zerbitzua eta kontrol- eta administrazio-zerbitzua ezinbestekoak dira horrek behar bezala funtziona dezan. Zerbitzu horiek izan gabe, ezin izango litzateke kiroldegia irekita mantendu, eta, hortaz, ez litzateke emango toki-erakundeek eman beharreko gutxieneko zerbitzua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 26. artikuluan xedatzen dena alegia.

5. eta 6. espedienteetan, lizitatzailleek esperientzia balioetsi da esleipenerako irizpide gisa. Horri dagokionez, honako hau adierazi zuen Europar Batasuneko Lehen Auzialdiko Auzitegiak 2003ko otsailaren 25ean: “lizitatzaille baten eta haren lantaldearen esperientzia eta trebetasun teknikoa, dagokion kontratuko proiektuen antzekoak zenbatetan egin dituzten eta proposatutako azpi-kontratatzailleek kalitatea elementu kualitatiboak dira guztiak, eta, kontratuak eskatzen duen mailara heltzen ez badira, obrak berandutzea edo lan gehigarriak egin beharra izatea gerta daiteke”; beraz, esperientzia kontratuak esleitzeko irizpideetako bat izan daitekeela onartzen du.<sup>3</sup>

1. espedienteari dagokionez, epaitegiak dio baldintza-orrietan sartutako formulak murriztu egiten duela hasiera batean irizpide horrentzat aurrez ikusitako haztapena, 50 puntukoa, eta 35 puntura murriztuta geratu dela. Ez dugu guztiz ulertzen epaitegiak zer esan nahi duen. Halere, argitu nahi dugu, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 16. epigrafean adierazten den eran, proposamen ekonomiko merkeenak, hau da, beharpen handiena eskaintzen zuenak, 50 puntu jasoko zituela. Gainerako proposamenei (bakar bat kasu honetan) formula jakin bat aplikatuko zitzaizela aurreikusten zen. Horixe aplikatu zitzaion bigarren proposamen horri, eta 35,49 puntu eskuratu zituen proposamen ekonomikoari zegokionez. Hortaz, ez zaigu iruditzen aurrez ikusitako haztapena murriztu zenik inola ere.

7., 8., 10., 11. eta 12. espedientei dagokienez, epaitegiak adierazten du prezioa balioesteko orduan formula aritmetikoek kalte egiten dietela eskaintza merkeenei, beharpeneko zenbateko jakin batetik behera puntuazioa berdintzen dutelako. Esan behar da ez dagoela hori egitea eragozten duen legerik. Gainera, prezioaz gain beste irizpide batzuk balioetsiz gero, kontratatzailleek erabaki dezakete zer irizpideri emango dioten garrantzi gehien, hau da, zer irizpide, ekonomikoa edo teknikoa, sendotu nahi duten esleipena eskuratzeko ahaleginean. Hori horrela, prezioaren irizpidea balioesterakoan beharpeneko ehuneko jakin batetik behera puntuazioa berdinduz, gainerako irizpideetan ahalegin handiagoa egitea eta hobekuntzak egiteko lehiakorrago izatea lortu nahi du administrazioak.

Horrez gainera, prezioaren irizpidean hobekuntza-muga bat jartzea ez zaigu ez legez kanpokoa, ez zentzugabea iruditzen, indarrean dagoen legedian beharpen ausartegiak

<sup>3</sup> Aipatutako epaiak kalte eta galerak ditu helburu eta ez du eskarmentua esleipen irizpideen ikuspegitik balioztatzen, baizik eta elementu kualitatibo modura hartzen du; epaitegi horren beraren 2008ko urtarrilaren 24ko eta 2006ko martxoaren 9ko epaiek esleipen irizpide modura baztertzen dute.

araututa daudela kontuan hartuta. Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak (espediente hauei guztiei aplika dakieke) honako hau dio 136. artikuluan: *klausula-agirietan adierazi ahal izango da zein parametro objektiboren arabera ulertuko den, hala dagokionean, proposamenak ezin direla bete balio neurrigabeak edo anormalak izateagatik*. Agindu hori kontuan hartuta, beraz, erakunde batek muga jakin batzuk ezar ditzake, eta horietatik kanpo geratzen den proposamen bat ausartegizat jo, baita baztertu ere egoki iruditzen bazaio, hura ausartegia dela iruditzen zaiolako. Hori horrela, ez zaigu zentzuzkoa iruditzen Udalak puntuazioko gehienezko muga bat jarri ezin izatea prezioaren irizpidean, iruditzen zaigulako enpresek ezin dutela muga hori hobetu kontratatu nahi den zerbitzuak ezinbesteko beste alderdi batzuetan urritasun handiak izan gabe.

6. espedienteari dagokionez, epaitegiak dio ez dela arrazoitzen zergatik ez den sartu prezioaren irizpidea esleipen-irizpideetan. Urriaren 30eko 30/2007 Legeak ez du adierazten prezioaren irizpidea esleipen-irizpideetatik kanpo utzi ezin denik edo hori arrazoitu beharra dagoenik; esaten duena da esleipenerako irizpide bakarra egotekotan prezioaren irizpidea izan beharko dela, baina egoera honetan ez da hori gertatzen.

#### - Esleipena

6., 10., 11. eta 12. espedienteen inguruan aipatzen den behin betiko bermea kalkulatzeko moduari dagokionez, azaldu nahi dugu zerbitzuei dagokienez urteko aurrekontua hartu dugula erreferentzia gisa behin betiko bermea kalkulatzekoan, kontratuaren prezioaren zenbatekoa kontuan hartuta kalkulatu gero zenbateko neurrigabeak atera daitezkeelako, eta horiek oso gaitzak izan daitezkeelako behin eta berriro eta modu jarraituan ematen diren zerbitzuen kontratatzailearentzat. Hori horrela, betetze akastun bat kontratua gauzatu ahala zuzen daiteke. Gainera, kontratu horiek ez betetzeak, hasiera batean, ez dizkio kalte ekonomiko zuzenak eragingo udalari.

6., 10., 11. eta 12. espedienteetan behin betiko esleipena ez argitaratu izanari buruz, adierazi nahi dugu ahazte bat izan dela, eta ez esleipenaren publizitatea mugatzeko asmoz egindako doluzko egintza; izan ere, interesdun handienei eman zaie esleipenaren berri, hau da, lizitaziora aurkeztu diren gainerako kontratatzaileei.

#### - Egikaritza eta harrera

Jarraian adierazten dena azpimarratu nahi dugu 2. espedientearen inguruan. Kiroldegia handiagotzeko obra kontratatzeari buruzkoa da hori, eta azaldu nahi dugu obra gauzatzeko epea zergatik ez den bete epea handiagotzea onartu gabe: eraikin horretan, hau da, kiroldegian, bi obra desberdin gauzatu ziren aldi berean -bakoitza bere kontratazio-espedientearekin eta bere obra-proiektuarekin-, eta enpresa desberdinek gauzatu zituzten. Batetik, kiroldegia handiagotzeko aipatutako obra egin zen, eta, bestetik, kiroldegira sartzeko arrapala jartzekoa. Gainera, obra horietako bakoitzak finantziatio-iturri desberdina izan dute. Bigarren hori E Planak finantzatu du, eta haren gauzatze-epeen mende dago. Horregatik guztiagatik, zailtasun ugari sortu ziren obra gauzatzekoan, berez nahiko zaila zelako arrapala berria lehendik zegoen kiroldegi zaharrarekin eta gunerekin bererako





planifikatutako handitzearekin bateratzea. Hori horrela, berandutu egin zen hasieran aurrez ikusitako gauzatze-epaia, eta bi obrak aldi berean egin behar izan ziren. Askotan, ezin izaten zen obra batean aurrera egin beste obraren zati bat gauzatu arte. Gainera, lan horiek bi enpresa esleipendunen esku egoteak are gehiago zailtzen zuen koordinazioa, eta, gauzatzeko epea beteko ez bazen ere, gutxienez epea zenbat denboraz luzatu behar zen estimatzea eragotzi zuen horrek; estimazio horrekin epea handiagotzea onartu ahal izango zen.

3. espedientearen, Santueneako kirol-ekipamenduaren obra kontratatzeari buruzkoaren inguruan, epaitegiak dio ez dela bete lehen aipatutako obra gauzatzeko epea. Horri dagokionez, esan behar dugu kontratu hori oso konplexua dela, Santueneako bizilagunen parte-hartzearekin landu zelako proiektua, eta hurbiletik jarraitu zutelako hori nola gauzatzen zen; beraz, alderdi guztiek (obra, Udala eta bizilagunak) ahalegin handiak egin behar izan zituzten, bilerak, azterketak eta lekuan bertan balioespenak egin behar izan zituztelako. Ahalegin horrek ongi merezitako saria izan zuen obrak behar bezala gauzatu zirela bermatu zelako, eta bizilagunen oniritzia jaso zelako.

Eguneko zentroko erabiltzaileen garraio-zerbitzuari dagokionez, adierazi behar da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ohartarazitako urritasunak zuzendu dituela Udalak. Negoziatutako prozeduraren bidez esleitu da zerbitzu hori.

Bizitza-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta higiezinak kontratatzeari eta hiri-hondakinen gaikako hondakin-bilketan eskuratutako kartoia eta papera besterentzeari dagokionez, jakinarazi nahi dugu dagozkion lizitazioak gidatuko dituzten baldintza-orriak prestatzen ari dela udala, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak nabarmendutako urritasuna ahalik eta denbora laburrenean konpontzeko asmoa duela.

## IV. FINANTZA ANALISIA

### Sarrera arruntak

- Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak

Honako hau dio txostenak: “tasak eta bestelako sarrerak kontzeptuko sarrerek %30 egin dute gora aztertutako aldian, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arabera zaborren tasak eragindako sarreren igoeraren ondorioz nagusiki (%81eko igoera); izan ere, atez ateko bilketa sistemaren tarifa aldatu da eta batez ere denda eta industriak eragin ditu, birziklagarriak ez diren hondakinen bolumenaren arabera tasa fakturatu baitzaie ri dagozkion sarrerak handiagotu direlako batez ere (% 81eko igoera), atez ateko bilketaren sistemaren tarifa aldatu izanaren ondorioz, eta horrek eragin handia izan du saltokietan eta industrietan, birziklatu ezin diren hondakinen bolumenaren proportzioko tasa bat fakturatu delako (ikus A.7)”.

Beste alde batetik, aipatu behar da Herri Kontuen Euskal Epaitegiak esandakoan ez dela kontuan hartzen hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzu berri bat ematen denik, indarrean dagoen legearekin bat, eta bilketaren esparrua handiagoa dela eta kalitate hobea duela. Hau da, hiri-hondakinen % 100 –etxeetakoak, merkataritzakoak eta industrialdeetakoak– biltzeko aukera ematen duen zerbitzu integrala da, eta, beraz, egiturazko aldaketa bat egin da 2009ko martxoaren 16ra arte ematen zen bilketa partzialeko



zerbitzuarekiko; udalak, zeharkako kudeaketaren bidez, azpi-kontrata baten bitartez ematen zuen zerbitzu hori, eta, beste alde batetik, San Marko Mankomunitateak.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak hondakinak biltzeko zerbitzuaren kostuen alderaketa bat egiten du 7. eranskinen, baina alderaketa hori ez da zerbitzu berari buruzkoa, eta txostenak ez du errealitate hori kontuan hartzen.

Testuinguru berri horretan, nahitaez aipatu behar dugu, hasteko, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 20. artikulua (lege hori, gaur egun, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak indargabetuta dago, baina Usurbilgo Udalak, Estatuan eta Europan indarrean zegoen legediarekin bat, hondakinak biltzeko eta tratatzeko sistema berria ezarri zuenean, indarrean zegoen artean). Agindu hori, Amaierako Xedapenetako Bigarrenaren arabera, 149.1.18. CE artikulua mendeko oinarritzko legea zen. Honako hau dio artikulua horrek: *"5.000 biztanletik gora duten udalerriek hiri-hondakinen gaikako hondakin-bilketarako sistemak ezarri behar dituzte, horiek birziklatzeko eta balorizatzeko beste modu batzuk gauzatzeko aukera emango dutenak. (...)"*. Honako hau da gaikako hondakin-bilketa aipatutako 10/1998 Lege horren arabera: "material organiko hartzigarriak eta material birziklagarriak bereizita biltzeko sistema, baita hondakinetan dauden material balorizagarriak banantzeko aukera ematen duen bilketa bereiziko beste edozein sistema ere".

Orain arte esandakoari jarraiki, hondakinak biltzeko, tratatzeko eta ustiatzeko sistema oso baten aldeko apustua egin zuen Usurbilgo Udalak, hau da, kalitatezko gaikako hondakin-bilketako eredu baten alde. Konpostajearen bultzadak osatuta, alternatiba on bat aurkezten dio masako bilketan eta ondorengo errausketan oinarritzen den ereduari. Sistema berri horren bidez, Usurbilgo udalak, sistema 2 urtez soilik aplikatu ostean, gaikako bilketa % 80koa izatea lortu zuen, eta, Gipuzkoan, garai hartan, etxeko hondakinen % 30 soilik biltzen zen gaika.

Txostenean sarreraren igoerari buruz aipatzen diren datuak kontraesanen daude. IV. epigrafean, igoera % 30ekoa izan dela adierazten da, eta VII. eranskinaren arabera, berriz, % 153koa izan da.

Honako igoera hau izan dute sarrerek benetan:

	2008	2009	2010	2011	2012
Hondakinak biltzeko eta desagerrarazteko tasa.....	136	195	252	388	385
Ecoembes salmenta (ontzi arinak, papera eta kartoia .....	0	46	104	110	100
Paperaren eta kartoiaren salmenta.....	0	8	38	50	34
Sarrerak, guztira .....	136	250	394	548	519
Defizita .....	202	240	300	258	136

Hortaz, 2009-2011 aldian, sarrerak % 128an handiagotzea ekarri dute tasek eta material-salmentak, eta igoera horren arrazoi nagusia da industrialdeak ere Udaleko gaikako hondakin-bilketan sartu direla, baita horiei dagozkien sarrerak ere, 2010az geroztik. 2011n, industrialdeei dagokie hiri-hondakinen bilketaren tasari dagozkion sarreraren % 44.





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Kontuan hartu behar da Usurbilgo etxeetako zergadunei jasanarazitako tasek honako bilakaera hau izan dutela:

	2009	2010	2011
Etxeak .....	76	76	78
Saltokiak .....	76	76	78

Hau da, Usurbilgo etxeei eta saltokiei jasanarazitako tasen hazkundera % 2,63koa izan da, eta ez % 81ekoa Herri Kontuen Euskal Epaitegiak IV. epigrafean eta 7. eranskinean adierazten duen eran; beraz, zuzendu egin behar dira horiek.

